

.eus luzapena aukeratzearen ondorioak

ZERGATIK eskuratu behar dut .eus luzapena duen domeinua? Luzapen berrira aldatzeak zertan eragiten du indarrean ditudan webgunean, posta elektronikoetan eta abarretan?

Mende hasieran galdera ohikoenak .com, .net, .edu edo .org luzapena zuten domeinuen komenigarritasunari buruzkoak izaten ziren. Hego Euskal Herrian, nire inguruan behinik behin, oso gutxi galdetu zuten .es luzapenaz; bestek beste, euskaldun izatearen eta .es luzapena erabiltzearen arteko kontraesanean, agerian geratzen baitzen gatazka historikoa. Hala ere, Hego Euskal Herriko administrazio askok .es luzapena aukeratu zuten euren domeinu-izenari eransteko. Ipar Euskal Herrian antzeko prozesua gertatu zen .fr luzapenarekin.

Internet gizarteratu denetik hogeitau urte eskas igaro dira, eta une honetan ehunka luzapen erabil daiteke. Administrazioek euren herrialdeetako luzapenak erabiltzen dituzte, eta mundu osoan enpresek .com, .net eta tankera horretako luzapen klasiko-

ak nahiago badituzte ere, gero eta gehiagok aukeratzen dute herrialde batekoa, batez ere euren produktuak herrialde horretako hizkuntzan saldu nahi dutenean.

Euskal Herrian .eus luzapena eskuratzen ari diren askok eta askok nor-tasanarekikoa dute .eus-era jauzia egiteko arrazoi nagusia; baina erabakia- ren ondorioak webgunea domeinuz aldatzetik harago doaz: erakundearen aurkezpen txartelak, posta elektronikoa, marka erregistratuak, merkatuko produktuen fitxa teknikoak kokapena eta beste hainbeste ezaugarri aldatu behar dira. Eta horrek kostua du.

Beraz, .eus harrotasunez eskuratzen badugu lehen unean, berehala pentsatu behar dugu gure erakundearen jarduerari marka hori komeni zaion ala ez. Gure salmenta-bide nagusiak atzerrian baldin baditugu, “Basque country” markak izan dezakeen indarraren arabera izango da gure interesa; baina gure jarduera batez ere Euskal Herrian kokatzen bada, .eus luzapenak psikologikoki lagundu gaitzake bezeroak gutaz duen pertzepzioa positiboago bihurtzen. ■



.eus domeinuaren aurkezpen ekitaldia.



ARGAZKI PRESS

Eguzkia baino zaharragoa den ura dago Lurrean

Michiganeko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera, Lurreko ozeanoetan dagoen uraren %30 eta %50 bitartean eguzkia baino zaharragoa da. Diotenez, ozeanoetako uretan dagoen deuterio proportzio handiak erakusten du ur horren kopuru esanguratsu bat, jatorrian, eguzkia sortu baino lehenagoko izotza izan dela. Deuterioa hidrogenoaren isotopo bat da; harekin osatutako urari ur astun esaten zaio.

ttiki.com/84040
(Euskaraz)

Liztor asiarraren aurkako borrokan arma berri bat

Europa osoa dago liztor asiarrarekin kezkatuta. Berriki, ikerlari frantziar batzuek eragingkorra izan daitekeen bide bat zabaldu dute haren aurkako borrokan: liztorraren erregina hiltzeko gai den parasito bat atzeman dute.

ttiki.com/84041
(Frantsesez)

40 urtean erdira jaitsi da hainbat animalien populazioa

WWF naturaren aldeko nazioarteko elkartearen arabera, 40 urtean animalia lehortarren %39 desagertu da, eta beste hainbeste itsasoko animaliei dagokionez. Ur gezako animalien %76 ere galdu da. Guztira, ornodunen %52 desagertu da 1970 eta 2010 bitartean.

ttiki.com/84042
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16